

## ZAHARTZE AKTIBOAREN INDIZEA BIZKAIAN:

### 2016KO KALKULUA ETA EMAITZAK

Bizkaiko Foru Aldundiak adin guztientzako lurralde baten alde lan egiteko erronka hartu du bere gain; eta alde horretatik, baldintzarik onenak sortu eta bideratuko ditu zahartze aktibo eta osasuntsurako. BIZKAIA GOAZEN 2030 planean barne hartutako helburu estrategiko bat da.

Helburu hori zehazteko asmoz, Zahartze Aktiboaren Indize baten bidez lurraldearen garapena monitorizatzea erabaki zuen, Europako estrategiarekin bat eginik.

**Zahartze Aktiboaren Indizearen kalkulua** (ingelesezko sigla AAI da: Active Ageing Index) nazioarteko adierazle bat da, **Europako Batzordeak eta Europarako Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoko Biztanleria Arloak batera** burutu dutena. AAI adin nagusiko biztanleriaren zahartze aktiboa monitorizatzeko eta diagnostikatzeko tresna bat da. Biztanle horien egoeraren ezagutzan oinarritutako politika publikoak formulatzeko eta erabakiak hartzeko laguntza ematea du helburu, gure nagusien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Bizkaiko Lurralde Historikoan egin den kalkulua **Bizkaiko Foru Aldundiak** sustatu eta Euskal Herriko Unibertsitateak gauzatu du.



## 1. BIZKAIKO BIZTANLEEN ZAHARTZEA ERRONKA SOZIAL ETA POLITIKO GISA

Biztanleriaren zahartzeak aldaketa-prozesu bat dakar gizartearen adin-egituran, adinekoen proportzioak gora egiten baitu. Prozesu horrek, funtsean, bi zergati ditu: alde batetik, bizi-itxaropenaren areagotzea, zeinaren ondorioz pertsona kopuru gehiago heltzen den adinez nagusi izatera; eta, bestetik, jaiotzeen beherakada, zeinaren ondorioz haurrek eta gazteek osatutako biztanleria-taldea murriztu eta adinekoen pisua areagotzen den.

Bizkaian, 64 urtetik gorako 263.028 pertsona zeuden 2016an, biztanleria osoaren % 23,1 (Eustat, 2016a). Adinekoen proportzioa handiagoa da emakumeen artean: 153.037 pertsona (% 25,9). Gizonei dagokienez, adinekoak 109.991 dira (% 20,1). Zahartze-prozesu hori bereziki nabarmena izan da XX. mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, eta badirudi joera ez dela laster amaituko. Aurreikuspen demografikoen arabera, 2025. urtean Bizkaiko biztanleen % 42k 55 urte edo gehiago izango ditu (Eustat, 2014b).

1. taula. Adinaren eta sexuaren arabera banatutako biztanleria. Bizkaia, 2016

Adina	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	n	%	n	%	n	%
≥ 55 urte	406.546	35,7	178.967	32,6	227.579	38,6
≥ 65 urte	249.926	21,9	103.719	18,9	146.207	24,8
≥ 80 urte	84.413	7,4	29.540	5,4	54.873	9,3
Guztira	1.138.852	100,0	548.636	100,0	590.216	100,0

**Iturria:** guk egina, Biztanleen Udal Estatistika oinarri hartuta (Eustat, 2016a).

Biztanleriaren zahartzea gure garaiko lorpen sozial garrantzitsuenetako bat da, “biziraupenaren demokratizazioa” (Pérez Díaz, 2006) dakarrelako. Horri esker, pertsona gehienak adinez nagusi izan arte biziitzea lortzen dute, aurreko garaietan biztanleriaren talde oso murriztuek lortzen zutena. Fenomeno horrek eraldatze-prozesu handiak eragiten ditu gizartean; horiek horrela, biztanleriaren adin-egituraren aldaketa gure garaiko erronka politiko eta sozial garrantzitsuenetako bat da eta izango da.

Hori dela eta, gobernuek –estatukoek, eskualdekoek nahiz tokikoek– zahartzearen eta bere ondorioen gaineko hausnarketa bat hasi dute. Alde horretatik, testuinguru bakoitzak bizi duen egoeraren diagnostikoa egin dute eta politika publikoak ezarri dituzte, adinekoen (gero eta ugariagoak direnak eta aurreko belaunaldikoen desberdinak) bizi kalitatea hobetzeko eta adinekoen biztanleriaren pisuak gizarte osoarentzako dakarren erronkari aurre egiteko. Horien artean, zahartze-aktiboa izenaz ezagutzen denaren barruan barne hartutako erronkek garrantzi handia hartu dute azken urteotan Europan.



Ildo horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Adinekoen Plan Estrategikoa onetsi zuen honako plan hauei jarraipena emateko: Bizkaian Zahartze Aktiboa Sustatzeko Ekintza Plana 2010-2011 eta Plan Gerontologikoa 2006-2011. Halaber, osoko bilkurako onespenerari esker, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak bat egin zuen lurraldeko estrategia globalarekin. Plan estrategiko horrek, Bizkaiko adinekoen zahartze aktiboa sustatzeko eginkizunaren baitan, **Zahartze Aktiboaren Indizearen (Active Ageing Index)** erabilera barne hartzen du, Bizkaiko egoeraren ezagutza hobetzeko eman beharreko lehenengo pauso gisa. Horren bidez, beste eginkizun hauek ere burutzen dira: identifikatutako gaitasun eta gabeziekiko koherenteak diren jarduketa-ildoak planifikatzea eta martxan jarritako politiken eragina monitorizatzea. Horrenbestez, Bizkaiko lurralde historikoaren strategiak bat egiten du Europar Batasunaren strategiarekin.



## 2. ZAHARTZE AKTIBOAREN INDIZEA (ACTIVE AGEING INDEX)

---

Europar Batasunak 28 estatu kideetako adineko biztanleen egoeraren diagnostikoa barne hartu zuen 2012. urteko zahartze aktiborako Europako gai-zerrendan; horrela, **Active Ageing Index proiektua atera zuen (Zahartze Aktiboaren Indizea)**, Europako Batzordeak eta Europarako Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoko Biztanleria Arloak batera kudeatzen dutena.

Zahartze aktiboaren definiziotik abiatuta, lau dimentsioz osatutako indize bat eraiki zen. Dimentsio horietako hiruk adineko biztanleriaren zahartze aktiboaren esperientzia batzeko asmoa zuten (enplegua, gizarte partaidetza eta bizitza independentea); eta laugarren dimentsioaren bidez, ostera, zahartze osasuntsua eta aktiboa sustatzeko pertsonen nahiz ingurunearen gaitasuna neurtzea zen asmoa.

**Zahartze Aktiboaren Indizea** herrialdeen arteko konparazioak egiteko tresna bat da. Adinekoek aktibo eta osasuntsu zahartzeko dituzten aukerak neurtzen ditu. Indize horren bidez neurtzen dira adinekoen bizitza independentearen maila, ordaindutako lanean duten partaidetza, gizarte jardueretan duten partaidetza eta aktibo zahartzeko daukaten gaitasuna. Indize hori lau dimentsio hauetan barne hartutako 22 adierazlez osatuta dago: enplegua, gizarte-partaidetza, bizitza independente eta segurua, eta osasuntsu zahartzeko gaitasuna. 2010. urteaz geroztik eta bi urterik behin, Europar Batasuneko (EB-28) herrialde bakoitzaren indizea kalkulatu da; horrela, herrialde bakoitzaren zahartze aktiboak bizi duen egoera eta izan duen garapena islatzen dituen ikuspegia lortu da. Gainera, Europako eskualde batzuek proiektuarekin bat egin dute, azpi-estatuko eskalan indizearen kalkulua eginez. Hori da, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasua.



### 3. 2016KO AAI-REN KALKULUA BIZKAIAN

---

Bizkaiko zahartze aktiboaren indizea kalkulatzeko Europar erabilitako metodologia aplikatu zen (Zaidi *et al.*, 2013). Hala eta guztiz ere, nahiz eta Europako kalkuluak egiteko soilik bigarren mailako datuak erabiltzen diren, Bizkaiari dagokionez, konparaketa egiteko datu-iturririk ez zegoenez, lehen mailako datuak sortu behar izan ziren. Datu horiek osatze aldera bigarren mailako datuak hartu ziren estatistika ofizialetako datu-iturrietatik.

Horiek horrela, lehenengo eta behin, Bizkaiko Zahartze Aktiboaren II. inkesta burutu zen. Inkesta horren oinarri gisa Europako metodologian erabilitako datu-baseetan jasotako galderak barne hartzen zituen galdetegi bat erabili zen (Zaidi *et al.*, 2013). Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliarrek erantzun zioten inkestari. Guztira, adin eta sexuaren arabera hautatutako 1.014 pertsona elkarriketatu ziren. Laginaren tamaina horrek, datu globalei dagokienez, eta ausazko laginketa sinplea eta gehieneko heterogeneotasuna ( $p = q$ ) jakintzat hartuta,  $\pm\%$  3,1eko errore-marjina eta % 95eko konfiantza-maila ekarri zituen. Inkesta 2016. urtearen amaiera egin zen.

Bigarren mailako datuak Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak eman zituen.


Datu-iturriak hautatu ostean, Bizkaiko Zahartze Aktiboko II. Inkestatik hamabi adierazle kalkulatu ziren, eta gainerako hamarrak bigarren mailako datuetatik. Adierazle horietatik abiatuta lau dimentsioen kalkulua egin zen.



#### 4. 2016KO AAI-REN EMAITZA BIZKAIAN: EUOPAR BATASUNAREKIN ALDERATUTAKO EGOERA


Bizkaia Europar Batasunaren batez besteko puntuazioaren gainerik kokatzen da: 2016an, 35,2 puntura iritsi zen, Belgika eta Italia bezalako herrialdeen antzeko mailan kokatuz. Puntuazio hori 2014an lortutakoaren antzekoa da, baina bi hamarren areagotu da.

1. Grafikoa. Zahartze Aktiboaren Indizearen emaitza globalak. EBko 28 herrialdeak, EBko 28 herrialdeen batez bestekoa eta Bizkaia. 2016






2. Grafikoa. Zahartze Aktiboaren Indizearen garapen globala eta EBko 28 herrialdeen dimentsioak, EBko 28 herrialdeen batez bestekoa eta Bizkaia. 2012-2014 eta 2016



Bestalde, genero-etena txikiagoa da Bizkaian Europar Batasuneko 28 herrialde gehienetan baino; izan ere, gizonen aldeko 1,8 puntuko aldea dago. Estonian, Finlandian eta Letonian baino ez daukate emakumeek gizonek baino puntuazio altuagoa.



3. Grafikoa. Sexuen arteko aldea Zahartze Aktiboaren Indizearen emaitzetan. EBko 28 herrialdeak, EBko 28 herrialdeen batez bestekoa eta Bizkaia. 2016







AAIren dimentsioak banaka aztertuz gero, antzeman daiteke Bizkaiko dimentsio batzuen puntuazioa beste dimentsio batzuen bano txikiagoa dela, besteak beste, enpleguari eta gizarte-partaidetzari dagokienez. Hala eta guztiz ere, aktiboki zahartzeko gaitasun eta ingurune egokiei dagokienez, Bizkaia Europaren buruan kokatzen da (hirugarren postuan), Danimarkaren eta Suediaren atzetik. Bizitza independente, osasuntsu eta seguruari dagokionez, Bizkaia Europako batez bestekoaren antzeko maila dauka, eta aurreko neurketa egin zenetik aurrerapen handia nabaritu da.

**2. taula. Dimentsio bakoitzaren emaitzak eta emaitza osoak Bizkaian, EBko 28 herrialdeetan eta puntuaziorik altuena lortu duen herrialdean**

	Bizkaia 2016	EB28	Gehieneko puntuazioa
ENPLEGUA	30,5	34	48,5
GIZARTE-PARTAIDETZA	14,6	17,7	26,9
BIZITZA INDEPENDENTEA, OSASUNTSUA ETA SEGURUA	71,9	72,1	81,5
GAITASUNA ETA INGURUNE APROPOSAK	65,7	55,4	71,1
ZAHARTZE AKTIBOAREN INDIZEA	35,2	34,4	45,9